

**ESTATUTUEN TESTUAN IZATEN AHAL DIREN AKATS NAGUSIAK, BAI JATORRIZKO IDAZKETAN, BAI GEROAGO EGIN DEN ALDAKETAREN BATEK ERAGINDAKOETAN ETA 13/2021 FORU LEGEARI EGOKITZEAN EGINDAKOETAN\*\*:**

*\*\* OHARRA: estatutueta 13/2021 Foru Legeari kontra egiten dioten xedapenak ez-jarritzat joko dira (13.2 art.).*

1. Ezartzen da Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldeaz harago doan jarduketa-eremu nagusi bat. (2.1 art.)
2. Esaten da fundazioa atxiki zaiola Nafarroako Foru Berria eta 13/2021 Foru Legea ez diren araubide juridiko bati.(3.2 art.)
3. Fundazioaren helburuak ez dira interes orokorrekoak. (4.1 art.)
4. Patronatuari baimena ematen zaio pertsonak edo pertsona-multzoak fundazioaren jardura eta onura zehatzen onuradun moduan hautatzen, inpartzialtasuna, diskriminaziorik eza eta objektibotasuna irizpideak erabili gabe. (5.2 art. eta 49.2 art.)
5. Fundazioen izenak ez ditu betetzen indarreko legedian izenari buruz aurreikusitako baldintzak, debekuak eta erreserbak. (7. art.)
6. Falta dira estatutuen nahitaezko aipuetako batzuk. (13. art.)
7. Patronatuari baimena ematen zaio fundazioan aldaketak, bateratzeak, bereizteak edo azkentzeak egiteko, arrazoirik eman gabe, eskritura publikoan ezarri gabe eta jarduketa horietarako foru legean ezarritako betebeharrak bete gabe. (16.-20. art.)
8. Ezartzen da ondare-gerakinaren xedea ez dela estatutueta edo fundazio-agirian fundatzaileek ezarritakoa; betiere, aurreikusitako xede hori, erakunde publiko edo pribatuaren aldekoa bada:
  - irabazi asmorik gabekoa bada
  - eta fundazioari berezko zaizkion interes orokorreko helburuak egiten badituzte. (21. art.)
9. Patronaturari ukatzen zaizkio foru legearen eta fundatzailearen borondatearen arabera berezkoak zaizkion ahalmenak. (nagusiki 36. art.)
10. Ahalbidetzen da patronatuko ahalmenen ordezkaritza uztea (39. art.):
  - patronatuko kide ez direnen eskuetan.
  - kontuak, aurrekontua eta jarduketa-plana onesteko, estatutuak aldatzeko, eta fundazioa batu, azkendu eta likidatzeko.
  - Indarrean dagoen araudiak edo estatutuek hala exijitzen dutelako, Babesletzaren baimena behar duten egintzak xede dituzten erabakiak hartzeko.
11. Esaten da ahal orokorrak edo bereziak ematea edo errebokatzea Patronatukoa ez den beste organo bati dagokiola (36.2 ñ art. eta 39.3 art.).
12. Ezartzen da 3 kide baino gutxiagorekin eratutako Patronatua. (23.1 art.)
13. Ez da Patronatuaren osaera zehatzik finkatzen, ezta patronatuko kideen gehieneko eta gutxieneko kopuruari erreferentzia eginez ere. (23.1 art.)

14. Ez da ezartzen patronatuko kideak izendatzeko edo berritzeko modua, kide horien agintaldia edo epemugak, kide hutsak betetzeko prozedura, eta kideak kanpoan, eri edo aldi baterako ezindurik dauden kasuan ordezipena nola egin. (23.6 art.)
15. Ez da esaten Patronatuak badituela presidentea eta idazkaria. (23.7 art.)
16. Esaten da Patronatuko karguak betetzen dituzten pertsonen arteko baten bat (kide ez den idazkaria izan ezik), ez dela hautatuko patronatuko kideen artean edo eraketa-agirian edo estatutuetan aurreikusitakoa ez den beste modu batean. (23.7 art.)
17. Esaten da ez dela beharrezkoa patronatuko kide batek bere izendapena aldeztatik onartzea eta, hala badagokio, kargua, hartan jardun aurretik. (25.1 art.)
18. Ezartzen da patronatuko kide guztiek edo haietako batzuek ez dutela nahitaez beren lana doan egin behar. (27.1 art.)
19. Baimena ematen zaie patronatuko kide guztiei edo haietako batzuei fundazioaren emaitza ekonomikoetan parte hartzeko, beren izenean edo tartekatutako pertsona/erakunde baten bitartez. (27.2 art.)
20. Esaten da, patronatuko kideen kopurua noizbait estatutuetan zehaztutako gutxienerako kopurua baino txikiagoa bada, patronatua ez dagoela behartua gutxienerako kopuru hori erdiesteko beharrezkoak diren kideak izendatzera edo sei hilabeteko epean kopuru hori erdiesten ez bada, patronatuko kideak ez daudela behartuak fundazioaren azkentzea berehala sustatzera edo, alternatibaren bat badago, estatutuak aldatzera, patronatuaren osaerari dagokionez. (31.2 art. eta 31.3 art.)
21. Berariaz ez da ezartzen zer egingen den patronatuko kideak izendatzeko, fundazioaren bizitzaren uneren batean patronatuko kide guztiak noizbait faltako balira. (31.4 art.)
22. Karguen eginkizunak adierazi dira, foru legean kargu horiek dituzten berariazko eginkizunak ezabatuta. (32.-34. art.)
23. Eskuordetutako organoak izanik:
  - onartzen da organo horietan patronatuko kide ez direnak egotea. (40.1 art.)
  - ez dira haien osaera, eskudantziak eta funtzionamendu-arauak ezartzen. (40.2 art.)
  - ezartzen da harremanetarako erregimen bat, patronatuan eginkizunen ordezkartze araututakoa ez dena. (40.3 art.)
24. Zuzendaritza-, laguntza- eta lankidetzatutako organoak izanik:
  - ez dira ezartzen haien osaera, eskudantziak, funtzionamendu-arauak eta Patronatuarekiko harremana. (41.2 art.)
  - ez da esaten patronatuaren jarraibideen mende daudela. (41.3 art.)
  - uzten zaie patronatuko kide ez direnei organo horien kide izaten, salbu eta ordaindu gabeko lanak egiten badituzte. (41,4 art.)
25. Kontsulta-organoak izanik:
  - ez dira ezartzen haien osaera, eskudantziak, funtzionamendu-arauak eta Patronatuarekiko harremana. (42.2 art.)
  - eginkizun betearazleak ematen zaizkie edo haien ekarpenei izaera loteslea ematen zaie. (42.3 art.)
  - onartzen da organo horietan patronatuko kide ez direnen presentzia. (42.4 art.)

26. Esaten da fundazioaren ondasun eta errentak fundazioaren xedeak betetzeari zuzen eta berehala atxikiak daudela. (43.1. art.)
27. Esaten da fundazioaren ondarea inbertitu daitekeela fundazioaren helburuak betetzeko eta etekinak eta ondare-gehikuntzak lortzeko egokiena ez den edozein modutan. (45.3 art.)
28. Esaten da fundazioaren helburuak erdiesteko erabili behar den kontabilitate-emaizta zuzenduaren ehunekoa % 70ekoa baino txikiagoa dela edo gerakina ezin duela patronatuak erabili zuzkidura edo erresebak handitzeko.
29. Esaten da fundazioak ez duela eraman behar bere jarduerari egokitutako kontabilitate ordenatua, hots, egindako eragiketen jarraipen kronologikoa ahalbidetuko duena edo ez zaizkiola aplikagarri Kontabilitateko Plan Orokorrean irabazi asmorik gabeko entitateetarako ezarritako egokitzapen-arauak, ezta foru legean kontabilitatearen arloan jasotako xedapenak. (49. art.)
30. Ezartzen dira eraginkortasun-epeak edo zuzenketa-egokitzapenak, foru legean ezarritakoez bestelakoak. (47. art.)
31. Fundazioari baimena ematen zaio jarduera ekonomikoak egin ditzan; jarduera horien xedeak ez du loturarik fundazioaren helburuekin eta ez dira helburu horiekiko osagarriak. (48.1 art.)
32. Fundazioari baimena ematen zaio partaidetza izateko merkataritza-sozietateetan (sozietate-zorretan erantzukizun pertsonala dago), salbu eta zuzkidura eta parte-hartzea gehiengoa badira. Hala bada, ezarri beharko da fundazioa behartuta dagoela berehala jardutera merkataritza-izaera erantzukizuna mugatuko duen beste modu juridiko bat hartzeko. (48.2 eta 3 art.)
33. Adierazten da fundazioa ez dagoela Nafarroako Fundazioen Babesletzaren mende. (60.3 art.)
34. Adierazten da Babesletzaren baimena beharko dela zuzkiduraren parte diren ondasun edo eskubideak erabili, besterendu, dela kostu bidez dela dohainik, edo zergapetzeko, bai eta fundazioaren helburuekin zuzenean lotuta daudenak ez direnak gauzatzeko. (63.1 art.)
35. Adierazten da Babesletzari ez zaizkiola komunikatu behar hurrengo egintzetako baten bat (64. art.):
  - gehienez ere 10 egun balioduneko epean, karga duten legatuak edo kostu bidezko edo ordainsaripeko dohaintzak onartzeko eta jaraunspenak, dohaintzak edo kargarik gabeko legatuak arbuizatzeko.
  - gehienez ere 30 egun balioduneko epean, fundazioaren beste ondasun eta eskubideak, zuzkiduraren parte ez direnak edo fundazioaren helburuak betetzearekin zuzeneko loturarik ez dutenak, transakzioa edo konpromisoa barne, eta ondasun higiezinak, merkataritza edo industria establezimenduak, kultura intereseko ondasunak eta, onetsitako azken balantzearen arabera, fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiagoko zenbatekoa dutenak (zein den ere haien xedea) kargatzekoak.
36. Adierazten da fundazioa ez dagoela 13/2021 Foru Legearen mende edo estatutuak ez direla indarrean dagoen legeriara egokitu behar (bigarren xedapen iragankorra).